



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

**2019KO ABENDUAREN 5EKO  
OSOKO BILKURAREN ERABAKIAK**

**ACUERDOS DEL PLENO  
CELEBRADO EL DÍA 5 DE  
DICIEMBRE DE 2019**

1. (deialdiko aldez aurreko gaia) Mozioa, Mikel Otero Gabirondo EH Bildu taldeko legebiltzarkideak aurkeztua, Jasangarritasun Energetikoaren Legearen helburuak betetzearen inguruan. Mozioari dagokionez, behin betiko ebaztea azaroaren 28ko osoko bilkurako bozketan izandako berdinketak, Erregelamenduaren 92.1 artikulua adierazitakoari jarraituz. [11\11\03\00\00156]

1. (asunto previo de la convocatoria) Resolución definitiva de los empates ocurridos en las votaciones del pleno celebrado el día 28 de noviembre en relación con la moción presentada por D. Mikel Otero Gabirondo, parlamentario del grupo EH Bildu, relativa al cumplimiento de los objetivos de la Ley de Sostenibilidad Energética, de acuerdo con el artículo 92.1 del Reglamento. [11\11\03\00\00156]

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES.

35/2019

35/2019

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoarekin bat etorrira, tokiko erakundeei laguntzeko finantza-tresna bat eratu dezala 2020ko ekitaldian, lege hori aplikatzeko egin beharreko inbertsioak errazteko".

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, de conformidad con lo previsto en la disposición adicional quinta de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca, proceda durante el ejercicio 2020 a constituir una herramienta financiera para el apoyo a las entidades locales, con el fin de facilitar las inversiones a realizar en su aplicación".





**2. (deialdiko 1. puntua) EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, frankismoaren biktimentzako diruzko erreparazio-neurriak aztertzeko txostena eskatzeko. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00651]**

EA-NV eta SV-ES taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

124/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio igor dezala Ganbera honetara, ahalik eta eperik laburrenean, memoria historikoaren eta demokratikoaren legearen proiektua, gure arau-esparrua osatzeko eta gerra zibilaren eta frankismoaren biktimen eta familien eskaria betetzeko helburuarekin.
2. Eusko Legebiltzarrak bere konpromisoa adierazten du lege-proiektu horrek Legebiltzarrean izango duen izapidetzea ahalik eta azkarrena izatea bultzatzearekin.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio izenda dezala adituen batzorde tekniko bat, legea onartu eta urtebeteko epean, zeinak, jada egindako erreparazio ekonomikorako neurriak kontuan hartuta, bai Estatuko araudian hartutakoak, bai Autonomia Erkidegokoan hartutakoak, lege hori aplikatzerakoan egoki izan daitezkeenak azter ditzan".

**2. (punto 1 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, de solicitud de un informe que analice las medidas económicas reparadoras para las víctimas del franquismo. [11\11\02\01\00651]**

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV y SV-ES.

124/2019

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a remitir a esta Cámara, en el menor plazo posible, el proyecto de ley de memoria histórica y democrática, con el fin de completar nuestro marco normativo y cumplir con la demanda de las familias y de las víctimas de la guerra civil y del franquismo.
2. El Parlamento Vasco manifiesta su compromiso con el impulso a la tramitación con la mayor brevedad posible en sede parlamentaria de dicho proyecto de ley.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que designe una comisión técnica de expertos, en el plazo de un año desde la aprobación de la ley, que, teniendo en cuenta las diferentes medidas de reparación económica ya realizadas, tanto en la normativa estatal como la autonómica, analice las que puedan resultar pertinentes en la aplicación de dicha ley".





**3. (deialdiko 2. puntua) Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, Euskadiko baso-suteak ikertzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00587]**

EA-NV, SV-ES eta PV-ETP taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

125/2019

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eguneratuta izan dezala, foru-aldundiekin batera, Baso-suteetarako larrialdi-plan berezia, eta, era berean, foru-aldundiekin lankidetzan jarrai dezala baso-suteak prebenitu, itzali eta ikertzeari dagokion gutzian.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, ingurumen-arloko arau-hausteen eta delituen aurrean jarduteko euskal planaren esparruan, koordinazio-protokolo espezifikoak jaso daitezela foru-aldundien, Ertzaintzaren Ingurumen Unitatearen eta Fiskaltzaren artean, jatorria euskal lurraldean duten baso-suteak ikertzeko premiei aurre egiteko.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio abian jar ditzala neurriak, foru-aldundiekin batera, baso-sektorea landa-ingurunea dinamizatzeko jarduera estrategiko bat izan dadin, zeinak baso-masak eta abeltzaintza estentsiboa modu jasangarrian kudeatzen lagunduko baitu, baso-produktuen balioa handitzea eta baso-biomasa landa-ingurunearen tokiko baliabide berriztagarri gisa aprobetxatzea lortzeko helburuarekin".

**3. (punto 2 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a la investigación de incendios forestales en Euskadi. [11\11\02\01\00587]**

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV, SV-ES y PV-ETP.

125/2019

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a mantener actualizado, conjuntamente con las diputaciones forales, el Plan especial de emergencias por riesgos de incendios forestales y, asimismo, a proseguir la colaboración con la diputaciones forales en todo lo referente a la prevención, extinción e investigación de los incendios forestales.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en el marco del plan de actuación vasco ante infracciones y delitos medioambientales, se contemplen protocolos específicos de coordinación entre las diputaciones forales, la Unidad de Medio Ambiente de la Ertzaintza y la Fiscalía, para hacer frente a las necesidades de investigación de los incendios forestales que tengan su origen en territorio vasco.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, junto con las diputaciones forales, ponga en marcha medidas para hacer del sector forestal una actividad estratégica dinamizadora del medio rural que ayude a gestionar de forma sostenible las masas forestales y la ganadería extensiva, con el fin de conseguir la revalorización de los productos forestales y el aprovechamiento de la biomasa forestal como recurso renovable local del medio rural".





4. (deialdiko 3. puntua) Mozioa, Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, Osasun Sistema Nazionalen Terapia Aurreratuei Ekiteko Planari (Car medikamentuak) buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\03\00\00155]

EA-NV, EH Bildu, SV-ES eta PV-ETP taldeen osoko zuzenketa onetsi da.

36/2019

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

Lehentasuna eman diezaiola minbizia diagnostikatzeko garatzen ari diren azken teknologiei eta gaixotasun horren aurka borrokatzeko garatzen ari diren tratamendu berritzailenei. Hartara, Car-T deritzen medikamentuetan arreta berezia jartzeaz batera, eskatzen diogu Osasun Sailari minbiziaren aurkako terapia berrien ezagutzan eta aplikazioan sakontzeko beharrezko neurriak bultzatzen jarraitzeko, hain zuzen ere, euskal osasun-sistema publikoan arreta onkologiko integrala bermatu ahal izateko eta osasun-emaizta hobekeriak erdiesteko".

4. (punto 3 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco, relativa al Plan de Abordaje de las Terapias Avanzadas en el Sistema Nacional de Salud: Medicamentos Car. [11\11\03\00\00155]

Aprobada la enmienda de totalidad de los grupos EA-NV, EH Bildu, SV-ES y PV-ETP.

36/2019

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco:

A que se dé prioridad a las últimas tecnologías y a los tratamientos más innovadores que se están desarrollando en el diagnóstico y lucha contra el cáncer. En ese sentido, instamos al Departamento de Salud a que siga promoviendo las medidas necesarias para profundizar en el conocimiento y aplicación de las nuevas terapias, poniendo además especial atención en los medicamentos Car-T, al objeto de garantizar una atención oncológica integral en el sistema público vasco de salud y poder lograr mejores resultados en salud".





**5. (deialdiko 4. puntua) EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, etxebizitzaredu berriak sustatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00655]**

EA-NV, EH Bildu, EP eta SV-ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

126/2019

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala etxebizitzaren arloko berrikuntzan aurrera egiten, eskariaren beharretara egokitzen diren eredu berriak bilatuz eta ezarri, eta, bereziki, jabetza kolektiboan oinarritzen diren erabilera-lagapeneko kooperatibak susta ditzala:

1.1. Hausnarketarako, eztabaidarako eta beste esperientzia batzuen kontrasterako espazioak sortuz.

1.2. Elkarlanean oinarritutako etxebizitza-iniziatibak (etxebizitza kolaboratiboak) garatu ahal izateko marko legal bat definituz.

1.3. *Cohousing*-ari buruzko informazioa eta aholkularitza indartuz, elkarlanean oinarritzen den bizitza-proiektu berritzaile gisa.

1.4. Elkarlanean oinarritutako etxebizitza-esperientziak babestuz, haien garapena orientatuz eta erraztuz Jaurlaritzaren eskura dauden tresnen eta bitartekoen bidez.

1.5. Espazio konkretuak identifikatuz (orube zein eraikinak, zuzkidura-orubeak barne direla) eta, ahal den neurrian, haien erabilera-lagapena sustatuz lehiaketa publiko bidez.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala bultzatzen politika sektorialen kudeaketa eta integrazio hobea erraztuko duten

**5. (punto 4 de la convocatoria) Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, en relación con la promoción de nuevos modelos de vivienda. [11\11\02\01\00655]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP y SV-ES.

126/2019

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a continuar avanzando en la innovación en vivienda, buscando e implantando nuevos modelos que se adecuen a las necesidades de la demanda, y especialmente a promover las cooperativas de cesión de uso basadas en la propiedad colectiva:

1.1. Creando espacios para la reflexión, el debate y el contraste de otras experiencias.

1.2. Definiendo un marco legal para el desarrollo de las iniciativas de viviendas basadas en la colaboración (viviendas colaborativas).

1.3. Reforzando la información y el asesoramiento sobre el *cohousing*, como proyecto de vida innovador basado en la colaboración.

1.4. Apoyando experiencias de vivienda basadas en la colaboración, orientando y facilitando su desarrollo a través de herramientas y medios a disposición del Gobierno.

1.5. Identificando espacios concretos (solares y edificaciones, incluidos los solares dotacionales) y promoviendo, en la medida de lo posible, su cesión de uso mediante concurso público.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir impulsando la creación de redes de colaboración (con las áreas de vivienda y servicios sociales de los





lankidetzaren sarea sortzea (udaletako etxebizitza-eremuekin eta gizarte-zerbitzuekin, hirugarren sektorearekin, birgaitzeko eragileekin eta abarrek), helburua izanik udalerrietatik egin nahi diren etxebizitza-eredu berriak sustatzen laguntzea, bereziki adinekoentzako eta gazteentzako etxebizitza kolaboratiboko edo etxebizitza partekatuko ekimenetan:

- 2.1. Udalerriari orientazioa eta aholkularitza emanez.
- 2.2. Hasita dauden edo hasteko asmoa dagoen proiektuei laguntza finantzarioa emanez".

ayuntamientos, con el tercer sector, con los agentes de rehabilitación, etc.) que favorezcan una mejor gestión e integración de las diferentes políticas sectoriales, con el objetivo de colaborar en la promoción de los nuevos modelos de vivienda que se pretenden llevar a cabo desde los municipios, especialmente en las iniciativas de vivienda colaborativa o compartida para personas mayores y jóvenes:

- 2.1. Prestando orientación y asesoramiento a los ayuntamientos.
- 2.2. Apoyando financieramente los proyectos ya iniciados o que se pretenden iniciar".





**6. (deialdiko 5. puntua) Legez besteko proposamen hauek batera eztabaidatu eta behin betiko ebazpena hartzea:**

**Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, migratzaileei eta errefuxiatuei harrera egiteko euskal sistema bat sortzeari buruz. [11\11\02\01\00610]**

**EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideen defentsari buruz. [11\11\02\01\00634]**

EA-NV, EH Bildu, EP eta SV-ES taldeek hitzartutako erdibideko zuzenketa onetsi da.

127/2019

"Eusko Legebiltzarrak:

1. Bere kezka agertzen du migratzaileak mehatxu gisa aurkezten dituzten diskurtsoak ugaritzen ari direlako mundu guztian. Horren ondorioz, zera ari da gertatzen Europar Batasunean: kanpo-eta barne-mugak faktikoki berrezartzen ari dira, errefuxiatuen eta etorkinen giza eskubideen aitortzan atzera egin da, gorroto-diskurtsoak agertu dira, politika-eta erakunde-arloan modu irekian adierazten da xenofobia, ezinezkoa da migrazio-politika bateratu bat eraikitzea, eta murriztu egin dira itsas laguntza humanitarioan behar diren baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide materialak.
2. Europar Batasuneko erakundeei eskatzen die bultzatzea giza eskubideen arloko politikak, eta, horretarako, bete ditzatela nazioarteko itunak; ireki ditzatela bide seguru eta legalak gatazka bortizetatik eta jazarpenetatik ihesi dabilzantentzat; eta zabaldu dezatela bisa-, asilo- eta babes-politika, migratzaileak eta errefuxiatuak beren migrazio-bidean daudenean haien bizitza eta osotasuna bermatzeko.

**6. (punto 5 de la convocatoria) Debate conjunto y resolución definitiva de las proposiciones no de ley siguientes:**

**Proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a la creación de un sistema vasco de acogida a personas migrantes y refugiadas. [11\11\02\01\00610]**

**Proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, en relación con la defensa de los derechos humanos de las personas migrantes y refugiadas. [11\11\02\01\00634]**

Aprobada la enmienda transaccional suscrita por los grupos EA-NV, EH Bildu, EP y SV-ES.

127/2019

"El Parlamento Vasco:

1. Manifiesta su preocupación por la proliferación en todo el mundo de discursos que presentan al migrante como una amenaza. Como consecuencia de ello, en la Unión Europea se está produciendo un restablecimiento fáctico de fronteras exteriores e interiores; retroceso en el reconocimiento de los derechos humanos de personas refugiadas e inmigrantes, discursos de odio, xenofobia con abierta expresión político-institucional; e imposibilidad de construir una política migratoria común, así como una reducción en los medios económicos, humanos y materiales necesarios en salvamento marítimo humanitario.
2. Solicita a las instituciones de la Unión Europea impulsar políticas en el marco de los derechos humanos, cumpliendo con los pactos internacionales, abriendo vías seguras y legales para quienes huyen de conflictos violentos y hostigamientos, ampliando la política de visados, asilo y protección con el fin de asegurar la vida y la integridad de las personas migrantes y refugiadas en su tránsito migratorio.





3. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarraitu dezala garatzen gizarte-zerbitzuen sisteman jasotako zerbitzuak eta prestazioak, bai eta babes-sistema guztiak ere, eta egokitu, indartu eta doitu ditzala behar diren baliabideak, errolatu ahal izatea errazteko eta oinarriko eskubideen titulatasuna ahalik eta gehien hedatzea sustatzeko, edozein dela ere nazionalitatea, eta bultzatzeko, batetik, hezkuntzaren, osasunaren eta oinarriko gizarte-prestazioen unibertsaltasuna, eta, bestetik, prestakuntza zein enplegurako eta etxebizitzarako gizarteratze eta laneratzea lortzeko bideei eustea, eskubide- eta betebehar-berdintasunaren baitan.
  4. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarraitu dezala garatzen 2018-2020rako Herritarren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren eremuan jarduteko V. Planeko eta Eusko Jaurlaritzaren Esparru Dokumentuko neurriak, modu bateratuan bideratzeko errefuxiatuek Europako mugetan pairatzen duten krisi humanitarioari eman beharreko erantzun sozial, politikoa, erakunde arteko eta sailartekoa.
  5. Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eratu dezala, Herritarren, kulturartekotasunaren eta bizikidetzaren eremuan jarduteko V. Planean 2020ko lehenengo seihilekorako jasotzen denez, atzerriartasun-gaietako aditu taldea, aurrera egin dadin immigrazioaren arloko ahalik eta eskumen autonomiko gehienetara iristeko lege-esparruaren hausnarketan eta analisisian, arreta berezia jarriz errotzeko betekizunei, lan-baimenei, egoitza-baimenei, familia berrelkartzeari, harrera-eskumenari eta abarri dagokienean, martxan jar daitezzen harrerarako ahalik eta neurri eta tresna egonkor gehienak, migratzaileak eta errefuxiatuak hartzea, artatzea, integratzea eta haien giza eskubideak babestea sustatzeko.
  6. Berrito adierazten du eta azpimarratzen du, 2017ko maiatzaren 11n
3. Insta al Gobierno Vasco a seguir desarrollando los servicios y las prestaciones previstos en el sistema de servicios sociales y todos los sistemas de protección, así como a realizar las adecuaciones, los refuerzos y los ajustes de recursos que sean pertinentes con el fin de facilitar el acceso al empadronamiento y promover la máxima extensión posible de la titularidad de derechos fundamentales, con independencia de la nacionalidad, e impulsar la universalidad de la educación, la sanidad o las prestaciones sociales básicas y el mantenimiento de cauces para el acceso a la formación e integración socio-laboral para el empleo y a la vivienda en un marco de igualdad de derechos y deberes.
  4. Insta al Gobierno Vasco a seguir avanzando en el desarrollo de las medidas previstas en el V Plan de Actuación en el ámbito de la ciudadanía, interculturalidad e inmigración (2018-2020) y en el Documento Marco del Gobierno Vasco para orientar de forma compartida la respuesta social, política, interinstitucional e interdepartamental a la crisis humanitaria que sufren las personas refugiadas en las fronteras europeas.
  5. Insta al Gobierno Vasco a conformar, tal y como se recoge en el V Plan de Ciudadanía Interculturalidad y Convivencia para el primer semestre del año 2020, el grupo de personas expertas en materia de extranjería, para avanzar en la reflexión y análisis del marco legal que permita llegar al máximo de las competencias autonómicas en el ámbito de la inmigración, extranjería y convivencia, con especial atención a lo referente a los requisitos para el arraigo, permisos de trabajo, permisos de residencia, reagrupación familiar, competencia de acogida, etc., con el fin de poner en marcha todas las medidas e instrumentos estables de acogida posibles para favorecer la acogida, atención, integración y protección de los derechos humanos de las personas migrantes y refugiadas.
  6. Reitera y remarca la importancia de la cooperación internacional como motor







Legebiltzarrean hartutako akordioan adierazi zen bezala, zeinen garrantzitsua den nazioarteko lankidetzaz gizartea eraldatzeko eta herrialdeen giza garapen jasangarriari laguntzeko motor gisa, herrialde horietan indarkeriarik egon ez dadin eta giza eskubideak errespetatu daitezken. Hori dela eta, Eusko Jurlaritzari eskatzen dio garatu dezala osoki garapenerako lankidetzari buruzko euskal arautegia, bai eta Herrialde Txiroetuekiko Justizia eta Elkartasunerako Kartari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legea ere.

7. Aitortu egiten du migratzaileei eta errefuxiatuei laguntzen diharduten gizarte zibileko eragileen lana, bai itsas laguntzan egiten dutena, bai errefuxiatuak egoten diren kanpamentuetan egiten dutena, bai eta Euskadin harrera- eta elkartasun-sareak ezartzen egiten dutena ere".

de transformación social y para colaborar al desarrollo humano sostenible de los países, libres de violencia y respetuoso con los derechos humanos de la misma manera en que se manifestó en acuerdo parlamentario el 11 de mayo de 2017, por lo que insta al Gobierno Vasco a desarrollar en su totalidad la normativa vasca de cooperación al desarrollo, así como la Ley de Carta de Justicia y Solidaridad con los Países Empobrecidos (Ley 14/2007, de 28 de diciembre).

7. Reconoce la labor de los agentes de la sociedad civil que prestan su apoyo y colaboración a las personas migrantes y refugiadas, tanto en labores de salvamento marítimo como en campamentos en los que se encuentran las personas refugiadas o implementando redes de acogida y solidaridad en Euskadi".

